



Lehenengo Olentzero

Berrogei urtetik beherako txantxikuarrak normalizat joko daue era bateko edo besteko **Olentzeroren** bat Oñatin kalerik kale ikustia Gabon eguneko illunkaran edo Arantzazu auzuan arratsaldian. Baiña ezta beti hola izan; ez horixe! Gure artian 1970eko hamarkadiaren hasieran ekin xakon tradiziño bihurtu dan ohittura horri.

Dakituzen lez, datorren urtian beteten dira berrogeta hamar urte Oñatin ikastolia zabaldu zala: *San Migel* izenekua orduan, *Txantxiku* gerora. Eskola horretako andereño-maixu, guraso eta laguntzaille batzuen lanari eskerrak urten eben hemen, 1971n seguruenik, lehenengo Olentzerok. Ordurako beste herri batzuetan be kaleraketan zan.

Dana dala, etzan samurra izan. Batzuek esaten euen Olentzero *jentilla* zala, paganua, eta jaiotzak, belenak, bazterketara eto-rrera. Hori dala eta, pertsonaje mitiko horren jatorrixa eta esanguria esplikaitteko **Jaxinto Fernandez Setien** ekarri zan. *Garoa* zinia beteta egon ei zan Lazkaoko abade euskaltzale haren azalpenak entzuten. Jentia gustora geratu zan, nunbait. Hala eta be, batzuk gehitxuago lasaittu ziran Olentzeroren katamalo edo karetia Bidaurretako monjak egindakua zala jakin eunian.

Argazki honeittan ikusi zeikei orduko Olentzerok eukan itxuria. Banasta gañian jarritta, makilliaz eta farolaz. Bi urtetako fotografixak izango dira: ikazkin zaharra blusa illunakin agerketan dan bixetan honeik dira anderuak: aurrian **Joxe Mari Etxeberria**, Urteazpikokua, ezkerraldian, eta **Ramon Oregi**, Armeruenekua, eskuman; atzekuak, berriz, **Karlos Errasti**, San Antue kalekua, eta **Xabier Egaña**, Kale barriko panaderixakua. Euripeian ziraz jantzittako Olentzero hurrengo urtekua dala emuten dau, 1972kua-edo, eta **Felipe Biain**, Perratzaillienak, eta **Jabier Arabaolaza**, Artxubi-Kurpidek, doiai sorbalda gaiñian. Atzeko ande-ruen arpegixak eztira ikusten. Umiak eztittugu ezagutu. Ia identifikaitten lagunketan doskuzuen!

J. E.

Fotografixak Fernando Lizarralde *Kapok* ateratakuak dira eta guri Euxebi Osak eskuratu dosku. Argibidiak Euxebiri, Eli Igartzabaleri eta Mon Oregiri zor dostegu. Milla esker danoiri!